



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko ekainaren 23a

81. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-25/CCOI-00009. “Sodenak Sunsundegui SArri egindako ekarpen finantzarioak (2009-2024)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-25/CCOI-00009. “Sodenak Sunsundegui SAri egindako ekarpen finantzarioak (2009-2024)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Sodenak Sunsundegui SAri egindako ekarpen finantzarioak (2009-2024)” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko


Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



**AURKIBIDEA***Orrialdea*

I. SARRERA.....	5
II. SUNSUNDEGUI SA.....	5
III. HELBURUAK ETA IRISMENA .....	7
IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK .....	8
IV. SODENAREN, NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUNA.....	11
V. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	12
ERANSKINA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK .....	13
1. ERANSKINA. SUNSUNDEGUIREN ADIERAZLE EKONOMIKO-FINANTZARIOEN BILAKAERA (2009-2024) ....	25
2. ERANSKINA. SUNSUNDEGUIREN MANIOBRA-FUNTSAREN ETA KAUDIMEN- ETA DIRUZAINZA-RATIOEN BILAKAERA (2009-2024).....	26
3. ERANSKINA. SUNSUNDEGUIKO AKZIODUNEN BILAKAERA (2009-2024) .....	30
4. ERANSKINA. KONPARAKETA PLAN ESTRATEGIKOETAN ETA BIDERAGARRITASUN-PLANETAN ETA IBRETAN AURREIKUSITAKO EKITALDIETAKO EMAITZEN SALMENTA ZIFRAREN ETA DATU ERREALEN ARTEAN (2009- 2024).....	32
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK.....	35
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMATEN DIEN ERANTZUNA .....	36

## I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko urriaren 28ko bilkuran, Nafarroako Alderdi Popularrak talde parlamentarioak eskatuta, erabaki zuen Kontuen Ganberari fiskalizazio-txosten bat eskatzea *“SODENAK legegintzaldi honetan Sunsundegui enpresari egindako ekarpen finantzarioei”* buruz.

Geroago, aipatutako Batzarrak, 2024ko abenduaren 16ko bilkuran, erabaki zuen, Geroa Bai, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek eskatuta, Kontuen Ganberari *“SODENA enpresa publikoak 2009tik oraingo legegintzaldia hasi arte egin dituen inbertsio eta finantzaketa jarduerai”* buruz txosten bat egin zezan eskatzea.

Kontuen Ganberak bi eskabideak aintzat hartu eta bateratu egin zituen 2025erako duen fiskalizazio programan.

Azterketa lana otsailetik apirilera bitartean egin zuen auditoretzako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Lan horren emaitzak jakinarazi zitzaizkion Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta Ogasun kontseilariari, Nafarroaren Garapen Sozietatea SL (aurrerantzean, Sodena) sozietatearen Administrazio Kontseiluko lehendakariari, Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari, Sodenako zuzendari kudeatzaileari eta Sunsundegui SA (aurrerantzean, Sunsundegui) enpresari, alegazioak aurkez zituzaten, 19/1984 Foru Legeak, abenduaren 20koak, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzkoak, 11. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Epea amaituta, Sodenako zuzendari kudeatzaileak alegazioak aurkeztu ditu. Aztertu ondotik, alegazioak txostenari erantsi zaizkio, Kontuen Ganbera honen erantzunarekin batera, eta behin betikotu egin da txostena.

Eskerrak ematen dizkiegu Sodenako, Sunsundegui, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiko eta Industria eta Trantsizio Ekologiko eta Enpresa Digitaleko Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko langileei, lan hau egiteko eman duten laguntzagatik.

Txostenaren diru-zenbatekoei dagokienez, biribildu egin dira, zentimoak ager ez daitezten. Datuek zenbateko zehatz bakoitza biribilduta adierazten dute, eta ez biribildutako datuen batura.

## II. SUNSUNDEGUI SA

Sunsundegui (garai batean *“Burnizko SA”*<sup>1</sup> deitzen zena) 1966an sortu zen, helburu sozial honekin: *“era guztietako garraio-elementuak, txit bereziki motorrak, fabrikatzea, fase eta aplikazio guztietan. Era berean, garraio elementu horiek konpontzea eta eraikitzea, batez ere mota guztietako tren-makinak, baita elektrikoak ere, bidaiari eta merkantzia bagoiak, RENFErentzat nahiz beste erakunde batentzat edo partikularrentzat”*.

1983an, Espainiako Gobernuak RENFEko trenen mantentze-lanak barneratu egin zituen, eta horrek bere jarduera nagusia gabe utzi zuen Sunsundegui. Bere jarduera autobus karrozeriak eta abiadura txikiko trenak eraikitzen bideratzea erabaki zuen enpresak eta, azkenean, holding bat bihurtu zen, bere barnean Suministros y Servicios Unificados de Carrocería SL (autobusen karrozeriak egiten zituena) eta Suncove SA (tren bagoiak egin eta konpontzen zituena) enpresak ere biltzen baitzituen.

Gaur egun, karrozeriak egin eta muntatzen ditu Sunsundegui, beste enpresa batzuek egindako txasisetatik abiatuta, eta autobusetarako, kamioietarako eta atoiatarako ibilgailuak eta beste osagai mekaniko batzuk fabrikatu, konpondu eta merkaturatzen ditu; Volvo du bezero nagusia. Funtsean, distantzia luzeko autobusak, eta bakanago, hirikoak eta hiriartekoak, egiten ditu.

<sup>1</sup> 2018ko abendura arte mantendu zen izen hori; orduan, Sunsundegui SA bihurtu zen, absortzio bidezko fusioaren ondotik, enpresak Suncove SA eta Suministros y Servicios Unificados de Carrocería SL xurgatu baitzituen. Gure txostenean, halere, Sunsundegui deitzen diogu sozietateari, gertakari horren gainetik.

2009ko ekainean, Sunsundegui enplegu erregulazioko espediente (aurrerantzean, EEE) mistoa aurkeztu zuen, eteteko eta azkentzekoa. Gaia aztertuta, Sodenak erabaki zuen Sunsundegui laguntzea, guztira bost milioiko bi partaidetza-mailegurekin; eta orduko Navarra de Financiación y Control SA (Nafinco<sup>2</sup>) sozietate publikoak, guztira hiru milioiko zenbatekoa egiten zuten beste bi partaidetza-mailegurekin; horietatik 0,5 milioi itzuli zituen Sunsundegui.

Gainera, guztira euro bat ordainduta Nafincori beren akzioak erosteko aukera ematen zion kontratua sinatu zuten Sunsundegui akziodunek. Kontratu horren indarraldia 2011ko urriaren 23an amaitzen zen.

2011ko urriaren hondarrean, Sodenak, ordurako Nafinco xurgatua zuenak, erosteko aukera hori erabiltzeko borondatea adierazi zuen, eta 2011ko azaroan formalizatu zen erosketa eta sozietate publiko bihurtu zen Sunsundegui. Halaber, Sodenak 3,9 milioi euroko beste partaidetza-mailegu bat eman zuen abenduan.

2012ko abuztuan, Sodenak 1,2 milioiko mailegua eman zion Sunsundegui, enpresaren finantza-beharrak asetzeko.

2013ko maiatzean, Sodenak bere akzio guztiak saldu zizkien enpresan zuzendaritza postuetan ari ziren bost pertsonari eta 133 langileri, euro baten truke. Operazio hori egiteko, 35,23 milioiko ekarpenak egin zizkion Sodenak Sunsundegui, zeuden zorrak bertan behera utziz eta aurretiaz emandako maileguak kapitalizatuz.

Sundsundegui bere egoera finantzarioa hobetzea lortu zuen 2015-2019 aldian; hala ere, COVID-19aren pandemiak nabarmen eragin zion haren jarduerari eta, kasuko eskabidea tarteko, Sodenak 3,4 milioiko partaidetza-mailegua eman zion 2021eko urtarrilean. Epe horretan, Sunsundegui beste 1,51 milioi ere jaso zituen Sodenatik, bere instalazioak indarreko araudira egokitzeko.

Horrez gain, 2020tik 2021era bitartean, Sunsundegui zortzi milioi jaso zituen maileguan finantza entitateetatik, maileguen ehuneko jakin baterako abala ematen zien Kreditu Ofizialeko Institutua (aurrerantzean, KOI) erakundearekin sinatutako hitzarmen baten ondotik. Gainera, 2022ko uztailean Garapena Finantzatzeko Espainiako Konpainia (COFIDES SA)<sup>3</sup> entitateak 4,5 milioiko partaidetza-mailegua eta 4,4 milioiko mailegu arrunta eman zizkion.

2023ko urrian, Sunsundegui eta Volvok bi akordio, transferentzia teknologikoari buruzkoa bata eta ekoizpenekoa bestea, sinatu zituzten, beste bi autobus modelo gehituz, haiek fabrikatzen zituen Poloniako lantegia Volvok itxi ondoren.

Akordio horiek onartzeak esan nahi zuen Sunsundegui inbertsioak egin, langile gehigarriak kontratatu eta finantzaketa berria lortu behar zituela. Horregatik guztiagatik, 2023ko azaroan Sunsundegui laguntzea erabaki zuen Sodenak, hiru milioiko partaidetza-mailegu batekin eta sei milioiko beste mailegu gehigarri batekin. Mailegu horiek foru lege bidez baimendu zituen Nafarroako Parlamentuak, 2023ko abenduan eta 2024ko maiatzean.

2024ko uztailean, Volvok eta Sunsundegui, ados jarrita, bertan behera utzi zuten akordioa. 2024ko azaroan, Sunsundegui konkurtsoan deklaratu zuten bere borondatez hala eskatu ondotik, eta 2025eko martxoan konkurtso-administrazioak bere txostena aurkeztu zuen epaitegian. Horren ondotik, apirilaren 30ean, konkurtso-administrazioak ia langile guztiak kolektiboki kaleratzeko eskatu zuen, eta eginbidean zegoen produkzioa amaitzeko beharrezkoak ziren langileak ere bai, geroratuta.

<sup>2</sup> Nafincoren helburu soziala krisian zeuden enpresei laguntzea zen; baina desagertu egin zen, Sodenak xurgatu egin baitzuen Nafarroako Gobernuak 2010eko abenduan onetsi eta 2011n egikaritu zuen Enpresa Sektore Publiko Antolatze eta Berregituratzeko I. Plana egikaritu ondotik.

<sup>3</sup> Konpainia horrek Estatuko Birkapitalizazio Funtza (FONREC), mila milioikoa, kudeatzen zuen, pandemiaren ondorioz zailtasunak zituzten tamaina ertaineko enpresei laguntzeko.

### III. HELBURUAK ETA IRISMENA

Parlamentutik jasotako eskaerak kontuan hartuta, gure lanaren helburua izan da auditoretza operatibo bat lantzea, jakiteko ea Sodenak Sunsundegui 2009-2024 aldian egindako ekarpen finantzarioak bat ote zetozen hartarako erabili ziren funts publikoak egoki kudeatzeko irizpideekin.

Fiskalizazioaren irismen objektiboa Sodenak Sunsundegui egindako ekarpen finantzarioak dira, eta horretarako, informazio hau aztertu dugu:

- Ekarpen horiei buruz Sodenak emandako dokumentazioa.
- Sunsundeguien urteko kontuak 2009-2024 aldirako. 1. eta 2. eranskinetan, kontu horien eta konpainiaren aldi horretako finantza-egoeraren adierazle eta ratio ekonomiko-finantzario batzuen bilakaera ageri da. Era berean, 3. eranskinak erakusten du fiskalizazioaren xede den aldian akziodunek izan duten bilakaera.
- Sunsundegui buruzko bideragarritasun planak edo plan estrategikoak: 2009ko irailekoa, 2011ko ekain eta uztailakoa, 2013ko otsailakoa eta 2023ko maiatzakoa. 2009ko plana kanpoko enpresa batek egin zuen; eta gainerakoak, Sunsundegui berak.
- 2009ko abenduan Sunsundegui buruz kanpoko aholkularitza enpresa batek egindako "due diligence"<sup>4</sup> bat.
- Kanpoko aholkularitza-enpresa batek landutako plana, COFIDESi 2021eko maiatzean finantzaketa-eskaera egiteko; haren eguneratzea, Sunsundegui 2022ko martxoan egin, funts eskabide berri baterako eskatzeko; eta haren berrikuspena, kanpoko aholkularitza-enpresa batek 2022ko apirilean egin.
- Independent Business Review<sup>5</sup> (aurrerantzean, IBR), 2023ko azarokoa, 2024ko martxokoa, 2024ko apirilekoa eta 2024ko abuztuakoa, guztiak kanpoko enpresa berberak eginak.
- Sunsundeguien hartzekodunen konkurtsoarekin zerikusia duen dokumentazioa.
- Sunsundegui emandako dokumentazioa: estatutuak, enplegu erregulazioko espedientei buruzko datuak, lan-akordioak, jasotako maileguen ordainketen erabilera, Akziodunen Batzar Nagusiaren aktak 2023ko irailetik gaur arte, Sunsundeguien Administrazio Kontseiluaren aktak 2024ko apirilean sortu zenetik gaur arte.
- Sodenak egin nahi zituen maileguak baimentzeari buruz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Ondare zerbitzuak, Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak eta Industria Departamentuko eta Trantsizio Ekologiko eta Enpresa Digitaleko Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak emandako dokumentuak.

Fiskalizazioaren denbora-irismena 2009-2024 aldikoa da, baina egindako auditoretzarekin zerikusia dutenean, 2025ean izandako beste gertakari batzuk ere aztertu ditugu.

<sup>4</sup> Enpresa jakin baten egoerari buruz kanpo-auditoretzako edo aholkularitzako enpresa batek landutako azterketa zehatz eta sakona jasotzen duen txostena; enpresaren errealitatea eta izan ditzakeen arriskuak ezagutzea da helburua, enpresan inbertitu aurretik benetako egoera zein den jakiteko eta eragiketa segurua ote den ebazteko. Zehazki, Sunsundeguirako egindakoak honako liburuki hauek zituen: laburpen exekutiboa, finantzarioa, fiskala, legala, laborala eta ingurumenekoa.

<sup>5</sup> Negozio planaren berrikuspena edo birformulazioa izaten da, hirugarren independente batek egin. Ez da soilik analisi finantzario bat, baizik eta negozio baten etorkizuneko bilakaeraren analisia, barnean hartzen dituen alderdi estrategikoa, komertziala, merkatu-alderdia, eragiketak, antolaketa-alderdia eta abar.

Eskatu ohi dira, besteak beste, berregituraketa finantzarioko prozesu baten aurrean, kutxa-fluxuak sortzeko korapilo jarraituak izan badira banku-finantzaketarako lerroen mugak gainditurik, edo zorpetze-ratio handia duten finantzaketa-lerro berriak eskatu badira.

**IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK**

Kontuen Ganberak Sodenak 2009-2024 aldian Sunsundeguri egindako ekarpen finantzarioak fiskalizatu ditu. Ekarpene horiek 49,13 milioi eurokoak izan ziren guztira, xehetasun hauen arabera:

Data	Deskribapena	Zenbatekoa
	Sodenak alde zurratik abal bidez bermatutako kreditu-kontuak kitatzeko ekarpena	9.750.000
2013/05/10	Sodenak eta Nafincok alde zurratik emandako partaidetza-maileguen kapitalizazioa (12.600.000 euro) gehi haien interesak (945.836 euro)	13.545.836
	Sodenaren mailegua, 2010eko uztailean, bost milioikoa	
	Nafincoren mailegua, 2010eko uztailean, 2,5 milioikoa	
	Sodenaren mailegua, 2011ko abenduan, 3,9 milioikoa	
	Sodenaren mailegua, 2012ko abuztuan, 1,2 milioikoa	
	Sodenak alde zurratik abal bidez bermatutako confirming lerroak kitatzeko ekarpena	3.400.000
	Zirkulatzailaren beharretarako eskudirutan egindako ekarpena	6.100.000
	Zerga zorra kitatzeko eskudirutan egindako ekarpena	2.430.399
2019/12/23	Itzuli beharrik gabeko ekarpena, 2017an, 2018an eta 2019an egin, instalazioak egokitzeko	1.513.119
2021/01/28	Partaidetza-mailegua COVID-19a dela eta	3.400.000
2023/12/27	23/2023 Foru Legearen babesean emandako partaidetza-mailegua	3.000.000
2024/05/06	4/2024 Foru Legearen babesean emandako partaidetza-mailegua	6.000.000
<b>Guztira</b>		<b>49.134.354</b>

Ekarpene horien ehuneko 72 (35,23 milioi) 2013an eman ziren, Sodenak Sunsundegui bere zuzendaritzako kideei eta langileei euro baten truke saldu zirenean, 2011n kopuru berberetatik erosi eta une hartan sozietate publiko bihurtu ondotik. Ekarpene hori gauzatu zen alde zurratik 2010ean, 2011n eta 2012an emandako partaidetza-maileguak eta haien interesak (13,55 milioi) kapitalizatuta, Sodenak alde zurratik abal bidez bermatutako kreditu-kontuak (9,75 milioi) eta confirming lerroak (3,4 milioi) kitatuta, zirkulatzailaren beharretarako eskudirutan egindako ekarpenarekin (6,1 milioi) eta zegoen zerga-zorra (2,43 milioi) ere kitatuta.

Ekarpene ehuneko hamar (4,9 milioi) 2021ean eman zen COVID-19ari aurre egiteko (3,4 milioi); eta 2017-2019 aldian, instalazioak araudira egokitzeko (1,5 milioi).

Ekarpene gainerako ehuneko 18 (bederatzi milioi) ematea Nafarroako Parlamentuak baimendu zuen bi foru lege onetsiz 2023ko abenduan eta 2024ko maiatzetan. Emakida horren arrazoi nagusia izan zen Sunsundegui Volvoren 2023ko urrian lortu zuen akordioa gauzatzen laguntzea, ordura arte fabrikatzen zituenez gain beste bi modelo ekoizti ahal izateko, enpresaren egoera ekonomiko larria gaitzeko modu bakarra zelakoan.

Fiskalizazioa eginda, honako ondorio hauek ateratu ditugu:

- Sodenak Sunsundeguri egiten dizkion ekarpen finantzarioak haien azterketa egiten duen txosten tekniko batean oinarritzen dira, edo bestenez, plan estrategiko edo bideragarritasun-plan edo IBR batean. Sodenako Administrazio Kontseiluak onetsi zituen, eta 2023ko eta 2024ko abenduan egindakoak, gainera, Legebiltzarrak baimendu zituen, zegoen gobernu-erabakiaren ostean.

- Sodenaren erabakiak hartzeko euskarri izan ziren plan estrategikoak, bideragarritasun-planak edo IBRa egin zituzten kanpo-aholkularitzek, adierazi zuten barnean hartutako zifrak eta aurreikuspenak Sunsundegui eman zituela, eta auditatu eta kontrastatu gabeak zirela.

- Oro har, datu errealak ez ziren bat etorri planekin eta IBRekin, eta haiek baino nabarmen okerragoak izan ziren 2009-2013 eta 2023-2024 aldietan. 4. eranskinean ageri da, plan eta IBR horietan aurreikusitako salmenta eta emaitza zifren eta Sunsundeguien 2009-2024 aldiko egoeraren arteko konparazioa.

- 3. eranskinean, Sunsundeguien maniobra-funtsaren, diruzaintzako ratioen, kaudimen operatiboaren eta guztizko kaudimenaren bilakaera azaltzen da, bai eta 2009-2024 aldiaren kaudimengabezia aurreikusteko Altman-en Z1 adierazlearena ere.

Oro har, adierazle horien balioak negatiboak dira, eta horrek esan nahi du Sunsundegui ez zuela kutxa operatiboaren nahikoa fluxu sortzen epe laburreko ordainketa-beharrak asetzeko, ez zela gai zorrak bermatzeko eta epe luzeko ordainketa-betebeharrei aurre egiteko, diruzaintza-mailak ez zirela nahikoak eta, gainera, porrot egiteko probabilitate handia zuela.

Adierazle horien baliorik apalenak 2009-2013 eta 2023-2024 aldietakoak dira.

- Eragiketa garrantzitsuenei (2013, 2023 eta 2024koei) buruz Sodenak egindako txosten teknikoek aditzera ematen zuten, ikuspuntu tekniko hutsetik eta haiek zuten arrisku finantzario handiagatik, ekarpenak eman zitezkeela Sunsundeguirekin zerikusia zuten arrazoi sozioekonomikoengatik, 2013an hartzekodunen aurre-konkurtoa ere eskatu baitzen Merkataritza Arloko Epaitegian.

Gainera, bat zetozen irizten ekarpen horiek aldi baterako irtenbidetzat hartu behar zirela; eta adierazten zuten bazkide bat bilatu behar zela Sunsundeguien parte hartuko zuena, finantza-egonkortasuna emateko ez ezik industria-kudeaketa egokia lortzen laguntzeko ere.

- 2013ko operazioan, Sodenak honako aukera hauek aztertu zituen, haien kostua zenbatetsiz:

Aukera	Kostu zenbatetsia
Hartzekodunen konkurto bidez ixtea	25,21 milioi
Konpainia modu ordenatuan ixtea, eta zor guztiak likidatu ondoren, desegitea kudeatzea	36,26 milioi
Sundsundegui langileei saltzea	33,66 milioi

Langileei saltzearen alde egin zuen Sodenak, behar bezala zehaztu ez ziren irizpide sozioekonomikoak aipatuz.

- 2023ko eta 2024ko eragiketen txosten teknikoek agerian uzten zituzten konpainiaren emaitza negatiboak eta haren adierazle bilakaera okerra, eta haien arrisku finantzario handia aipatzen zuten. Hala ere, eratorriko litzatekeen inpaktu sozioekonomikoa kontuan hartuta, ekarpenak egiteko aukera zabaltzen zuen, betiere Nafarroako Parlamentuak hala onetsiko balu.

- Sunsundegui egindako azken sei milioiko ekarpenari dagokionez, Parlamentuak foru lege bidez 2024an baimendu zuenaz, Sunsundegui aurkeztu zuen IBRak adierazten zuen, ekarpen horrez gain, gutxienez hamar eta 12 milioi arteko finantzaketa gehigarria behar zuela.

Eragiketa horri eta 2023ko abendukoari dagokienez, Kontuen Ganbera honek uste du ezen, nahiz eta baden Sodenaren txosten bat ondorioztatzen duena ez zirela estatu-laguntzak, bien ala bien finantza-arrisku handia eta haien ezaugarriak kontuan hartuta, Europako Batzordeari jakinarazi behar zitzaioela laguntzak eman aurretik, hark azter zitzan, Kontu-hartzaitzako zuzendari nagusiaren eragozpen-txosten ez-etegarrian adierazten zen moduan.

Eragiketa hori izapidetzeko espedienteak araudian eskatzen diren dokumentu guztiak zeuzkan; besteak beste, Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiaren txostena. Txosten horri dagokionez, Ondare Zerbitzuaren aurretiazko txosten bat dago, besteak beste puntu hauek aipatzen zituena: Sodenak emandako maileguen kontabilitate-narriadura balantzean; maileguaren xedea, zeina ez baitzen enpresa kaudimendun bat, baizik 2021etik porrot teknikoan zegoen bat, desegiteko arrazoiaren eroria, izan ez balitz 2020ko eta 2021eko galerak salbuesten dituen araudiaren aldi baterako aplikazioagatik; Sunsundeguien parte hartuko zuen

industria-bazkide baten bilaketak huts egin zuela 2013tik; enpresako akziodunek arriskurik ez zutela hartzen; eta eman nahi zen maileguaren bermerik eza, enpresak ez baitzuen aktibo nahikorik, aktibo horiek bazeuzkaten-eta bigarren hipotekak.

Ondare Zerbitzuaren txostenak ondorioztatzen zuten mailegu hori ematea ez zela bidezkoa soilik irizpide finantzarioei erreparatuta, arriskutsua baino arriskutsuagoa zelako, beste instantzia batzuetan aztertu beharko liritekeen bestelako gai sozioekonomiko batzuk aintzat hartu gabe. Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak egin zuen txostenak, aplikatzekoa den araudiaren arabera, arestian aipatutako alderdi horiek jasotzen zituen, eta arrisku finantzario handiaz ohartarazten zuen, baina Nafarroako Gobernuak eragiketa baimentzeko erabaki-proposamena formulatuz amaitzen zen.

- 2024ko uztailean, Volvok eta Sunsundegui iragarri zuten modu adostuan uko egiten zietela hartutako erabakiei, Nafarroako enpresak modelo berriak ekoizteko zituen arazoak medio. Egoera horretan eta Sunsundeguien finantza eta ekoizpen arazoak kontuan hartuta, 2024ko azaroan hartzekodunen konkurtsoan deklaratu zuten ofizialki enpresa, berak borondatezko eskaera egin ondotik.

- 2025eko martxoaren 22an jaulki zuen bere txostena konkurtso-administrazioak. Bertan, 50,21 milioian zenbatesten zen Sunsundeguien zorra, eta 27,38 milioian balioesten ziren haren ondasun eta eskubideak. Era berean, aurreikusten zen langileei 5,27 milioiko kalte-ordainak eman behar izatea, EEE azkentzaile bat egiten bazen.

- 2025eko apirilaren 30ean, konkurtso-administrazioak 320 langileren kaleratze kolektiboa eskatu zuen; eta geroratuta, eginbidean zen Volvorekin adostutako produktua amaitu ahal izateko behar ziren 18 langileena.

**Laburbilduz**, Sunsundegui 49,13 milioi jaso zituen Sodenatik, 8,9 milioi COFIDESetik, eta zortzi KOIk bermatutako banku-mailegutan 2009-2024 aldian. Bere ibilbide industrial eta egoera finantzarioa 2015-2019 aldian hobetu bazen ere, COVID-19aren agerraldiak nabarmen kaltetu zuen, eta hurrengo urteetan ez zen gai izan bere produkzio prozesua eta egitura finantzarioa hobetzeko, jasotako funts publikoekin ere.

Volvorekin 2023ko urrian sinatutako akordioa erronka bat izan zen, baina Sunsundegui ezin izan zion aurre egin hari, bere gabezia produktibo eta finantzarioengatik. Inguruabar horiek kontuan hartu behar ziren, batez ere, sei milioiko azken ekarpena baimentzeko orduan, 2024ko maiatzean. Une horretan, Sunsundeguien egoera oso delikatua zen. Egindako IBRaren arabera, bideragarria izateko, gutxienez hamar milioiko finantzaketa gehigarria behar zuen Sodenak; eta horrez gain, negozioaren errealitate operatibo eta finantzarioaren neurria eman behar zuen konpainiak.

Kontuen Ganbera honen iritziz, aztertutako aldian Sodenak ahalegin handia egin du Sunsundegui laguntza finantzarioa ematen, Nafarroako Parlamentuak baimenduta bere azken bi emateetan, arrazoi sozioekonomikoak aintzat hartuta funtsean. Ikuspegi tekniko hutsetik begiratuta, laguntza horiek ez ziren funts publikoak ondo kudeatzeko irizpideen arabekoak, arrisku finantzario handia zutelako, konpainiaren bilakabideak erakusten zuten bezala.

Era berean, Kontuen Ganbera honek adierazi nahi du denboran zehar Sunsundegui emandako laguntza finantzario hori akziodunen konpromiso finantzariorik aurkitu gabe eman dela, sozietatea publikoa izan ez denean, eta ez dela lortu, saiakera ugari egin arren, negozioan interesa duen bazkide industrial bat sartzea.

Gure lanaren konklusioak aintzat hartuta, gomendatzen dugu:

- *Laguntza publikoak jasotzen dituzten enpresetako akziodunei finantza-konpromisoa eskatzea.*

- *Krisian dauden enpresei emandako laguntzak denboran mugatzearen egokitasuna aztertzea, haien bilakabidearen arabera.*

- *Eman nahi diren laguntzen berri Europako Batzordeari jakinaraztea, laguntza horiek Estatuaren laguntzat jotzeari buruz arrazoizko zalantzak daudenean.*

#### **IV. SODENAREN, NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUNA**

Sodenaren Administrazio Kontseiluaren ardura da sozietatea administratzea eta ordezkatzea, eta behar adinako arduraz bete behar ditu hark bere eginkizunak. Halaber, beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu sozietateak norabide eta kontrol ona izan dezan, prozedura egoki baten arabera. Zehazki, pertsona fisiko eta juridikoei laguntza finantzarioa eskuratzearen ardura du, maileguak –partaidetzakoak edo ez–, kredituak, abalak eta fidantzak emanda.

Halaber, bermatu behar du egiten dituen jarduerak eta eragiketak legeria aplikagarriarekin bat datozela, eta funts publikoen kudeaketa egokiaren arabera egiten direla.

10/2014 Foru Legea, maiatzaren 16koa, onetsi zenetik, zeinak aldatzen baitu 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako ogasun publikoari buruzkoa, Nafarroako Parlamentuaren erantzukizuneko da berariazko baimena ematea pertsona batek jaso behar badu Aurrekontuei buruzko foru legean ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko bost baino gehiagoko zenbatekoa duen mailegu bat, kontuan hartuta sozietate publikoen osotasunaren maileguen saldo bizia eta gehieneko arrisku bizia.

216/2019 Foru Dekretua, irailaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak eta maileguak emateko beharrezkoa den Nafarroako Gobernuaren baimena lortzeko prozedura arautzen duena, onetsi ondotik, sozietate publikoak behartuta daude, maileguak eman ahal izateko, ondare arloan eskumena duen departamentuko unitate organiko egokiari igortzera beren baimen-eskabideak. Unitate horrek Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari igorri behar dizkio, hark nahitaezko txostena eman dezan eragiketak aurrekontu-ekitaldian eta urte anitzeko esparru ekonomikoan izaten ahal dituen ondorioei buruz, kontabilitate nazionalaren ikuspegitik. Aurreko dokumentu guztiak ikusita, ondare gaietan eskumena duen departamentuak, hala badagokio, Nafarroako Gobernuaren erabaki proposamena eginen du eragiketa bakoitza baimentzeko; eta egoki bada, foru lege proiektu bat prestatu behar du, Nafarroako Parlamentuak espresuki baimendu dezan.

## V. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

2009-2024 aldian Sodenak Sunsundeguiari egindako ekarpen finantzarioen gaineko geure fiskalizazioan oinarritutako konklusio batzuk adieraztea da gure ardura.

Horretarako, Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoen fiskalizazio-printzipio orokorrei jarraituz egin dugu aipatutako fiskalizazioa; hau da, ISSAI-ES izenekoetan zehaztuta daudenei men eginez. Funtsean, aplikatu dira ISSAI-ES 300 “Principios fundamentales de la auditoría operativa” eta ISSAI-ES 400 “Principios fundamentales de la fiscalización de cumplimiento de legalidad” deritzenak. Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, eta fiskalizazioaren plangintza eta betearazpena egin ditzagula honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea aztertutako kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateari buruz.

Fiskalizazio bat egiteko, aplikatu beharrekoak dira ateratako konklusioei oinarri ematen dien auditoretza-ebidentzia lortzekoak diren prozedurak.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria jasotzen du ateratako konklusioei funtsa emateko.

Txosten hau jaulkitzen da bere egitearen arduradun izandako Karen Moreno Orduña auditoreak proposatuta, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

**ERANSKINA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK**

Jarraian deskribatuko ditugu, ordena kronologikoan, gure zereginen azaleratu diren eta gure txostenaren konklusio-atalean adierazi dena osatzen duten zenbait afera.

**SODENAK ETA NAFINCOK SUNSUNDEGUIRI EMANDAKO LAGUNTZA FINANTZARIOA (2009-2011)**

- 2009ko ekainaren 5ean, Sunsundegui EEE mistoa, etetekoa eta azkentzekoa<sup>6</sup>, aurkeztu zuen Nafarroako Gobernu Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan, bideragarritasun plan baten bermearekin. Plan horretan esaten zen Sunsundeguiaren egoerak galerak zituela 2007tik, eta haren egoera ekonomiko-finantzarioa jasanezina zela, eta berehalako ekintzak behar zirela haren porrota eta likidazioa eragozteko.

- Aipatutako departamentua bat etorri zen Sodenarekin plan hori nahikoa ez zela irizten, eta enpresak erretiratu egin zuen aurkeztutako enplegu erregulazioko espedienteak. Sodenak gainbegirata, kanpoko aholkularitza-enpresa bati eskatu zitzaion bideragarritasun-plana berrikusteko, eta negozio plan bat egitea gomendatu zuen hark; enpresak berak egin zuen plana, eta 2009ko irailean aurkeztu zen.

Plan horren konklusio nagusiak izan ziren Sunsundegui enpresa bideragarria zela, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baziren: zuzendaritzako lantaldea eta akziodunen osaera aldatzea, lehiakortasuna hobetzea, merkataritza-aliantza estrategikoak garatzea, eta finantzaketa-beharrak, 16,8 milioitan zenbatesten zirenak (eta horietatik 11,1 berehala behar ziren), asetzea.

Azkenik, 154 langileri 2009ko irailean eta urrian eragin ziren aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak onetsi zuen Sunsundegui.

- 2009ko urriaren hondarrean, bere administrazio kontseiluaren eta batzorde exekutiboaren arauzko baimenak jaso ondoren, Sodenak eta Nafincok Sunsundegui finantza-laguntza emateko konpromiso-kontratua sinatu zuten; partaidetza-maileguren bitartez egituratu zen kontratu hori, mailegu bakoitzak gehienez bost milioi euroko zenbatekoa zuela.

Gainera, Sunsundeguiaren akzio guztiak erosteko eta saltzeko aukera ematen zuen kontratu bat sinatu zuen Nafincok, eta haren bitartez, euro baten truke erosteko aukera eman zion Sunsundegui, 2011ko urriaren 23ra arte. Kontratuan zetorren klausula batean adierazten zen lehen 24 hilabeteetan erosleak behartu zezakeela salerosketa egikaritzea, baina hurrengo 12 hilabeteetan saltzailea izanen zela ahalmen hori zuena. Kontratu hori amaitzean aurreikusten ziren aukerak hauek ziren: erosteko aukera ez egikaritzea, emandako finantzaketa galduz, hala balitz; aukera hori egikaritzea, Sunsundegui enpresa publiko bihurtuz, salmenta-prozesu bat irekiz edo kanpoko inbertitzaileen bat sartuz; edo Sodena eta Sunsundeguiaren artean sortutako sozietate berri bati lagatzea aukera egikaritzeko posibilitatea.

Horrez gain, Sodenak, Nafincok eta Sunsundegui hitzarmen osagarri bat sinatu zuten, aurreko kontratuetako gai komunak arautzen zituen; hauek ziren aipagarriak:

- a) Sodena eta Nafinco Sunsundeguiko administrazio-organoetan ordezkatzeko eskubidea ezartzen zen –eta horretarako, beharrezkoa izanez gero, estatutu sozialak aldatu beharko ziren–, baita bileretara joateko eskubidea eta sozietate horri buruzko informazioa jasotzekoa ere.
- b) Hala eginen balitz, partaidetza-maileguren kapitalizazio-araubidea deskribatzen zen.
- c) Sunsundegui 2009ko irailaren 30ean “due diligence” eta auditoretza prozesu bat egiteko konpromisoa beretzen zuen.

Sunsundegui Akziodunen Batzar Nagusiak erabaki zuen administratzaile bakarraren postuan zegoen pertsonaren uko egitea onartzea eta kudeaketa hori ingeniari-entrepresa baten esku uztea, bere akzio guztien gozamina hari emanez.

<sup>6</sup> Sunsundeguiaren plantilla 276 langilekoa zen, eta enplegu erregulazioko espedienteak jasotzen zuen 77 langileren kontratua iraungitzea, eta 113 kontratu aldi baterako etetea, 67 egunez, 2009ko abenduaren 31ra arte.

2009ko azaroan eta abenduan, urriko konpromisoari men eginez, Sodenak eta Nafincok adostu zuten Sunsundegui zenbait mailegu ematea, guztira bost eta hiru milioikoak, hurrenez hurren.

2009ko abenduan, “due diligence”-a aurkeztu zen, eta haren konklusio nagusia zen proposatutako bideragarritasun plana aplikatu ahal izateko zuzendaritzaren aldaketa eta laguntza finantzarioa behar zela. Laguntza hori beharrezkoa zen Sunsundeguiaren etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko; hain zuzen ere, 2009ko irailaren 30ean, kapital sozialaren erdia baino gutxiagoko kontabilitate-ondarea baitzuen enpresak, eta beharrezkoa zen haren ondare-oreka berrezartzea, 8,9 milioiko defizita baitzuen.

- 2010eko maiatzean, Sunsundegui zuzendari nagusi berria kontratatu zuen, eta konpainiaren zuzendaritza taldea errotik aldatu zuen.

2010eko uztailaren hasieran, bai Sodenak eta bai Nafincok partaidetza-mailegu bihurtu zituzten Sunsundegui alde aurretik emandako maileguak.

- 2011ko maiatzean Sunsundegui Akziodunen Batzar Nagusiak administratzaile bakarraren kargutik kendu egin zuen ingeniari enpresa, eta 2010ean kontratatutako zuzendari nagusia izendatu zuen hartarako.

2011ko ekainean, Sunsundegui, Sodenak hala eskatuta, plan estrategiko bat landu zuen 2012-2016 aldirako, errentagarritasun atalasea lortzeko asmoz.

Plan horren helburu nagusietako bat zen soldata-kostuen zurruntasuna zuzentzea. Helburu horrekin, 2011ko uztailaren aurrekordio bat sinatu zen Sunsundegui Enpresa Batzordearekin, eta hauek ziren haren puntu nagusiak: soldaten euspena (2011n soldatak ehuneko 5,25 jaitea, 2011-2013 aldiran soldatak izoztea, eta metaleko lan-hitzarmena gehi ehuneko bat aplikatzea 2014-2016 aldiran); ordainsariaren aldakortasuna, absentismoaren eta produktibitatearen arabera; prima-sistema berrikustea eta 40 lanpostu murriztea. Akordio hori 2011ko urritik aurrera egikaritu zen eta 2016ra arte iraun zuen.

Onetsitako planaren arabera, 2011ko urriaren hondarrean, 37 langile (plantillaren ehuneko 15) kaleratzeko EEE bat, eta 183 lagunentzat (langileen ehuneko 72) 96 eguneko ABEE bat onetsi zen.

Plana 2011ko irailean aurkeztu zitzaion Sodenari, eta haren konklusio nagusia zen Sunsundegui 2013an errentagarria izan zitekeela, baina horretarako inbertsioak egin eta zirkulatuzailearen finantzaketa lortu behar zuela, enpresak kutxa fluxu positiboak sortu arte.

Plan hori kontuan hartuta, Sodenaren Administrazio Kontseiluak erabaki hauek hartu zituen 2011ko irailaren amaieran:

a) Nafincok<sup>7</sup> berea zuen euro baten truke kapital osoa erosteko aukera baliatzea.

Horren harira, adierazten dugu kontseiluari aurkeztu zitzaion egoera-txosten teknikoak eta finantza-laguntzak jakinarazten zuela ezen, erosteko aukera baliatu ezean, “... konpainiaren kontrola iraganeko akziodunengana itzuliko litzateke, haiek plan estrategikoa betetzeko inolako bermerik eskaini gabe... iraganeko akziodunek, urtebetez duten salmenta-aukeraren arabera, sozietatea erostera behartu gintzakete, gaur egungoa baino egoera okerragoan, ziurrenik...”.

b) Erosleak aktiboki bilatzea, ahal izanez gero bazkide industrialak, Sunsundeguiaren kapitalaren gehiengoa erosiko lukeena.

- 2011ko urriaren hastapenetan, kanpoko enpresa batek txosten juridiko bat egin zuen arren esanez Sunsundegui erosteko Nafarroako Gobernuaren erabakirik ez zuela behar, ez zelako *ex novo* sortuko merkataritza-konpainia bat, Nafincoren zuzendari kudeatzaileak, operazioaren munta kontuan hartuta, eskatu zion ondarearen arloan eskumena zuen departamentuari, izapidetu zezala Sunsundegui erosteko aukera gauzatzeko Nafarroako Gobernuaren baimena.

Horri buruz, bai Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (aurrerantzean, NEKP) eta bai Ondare Zerbitzuaren txosten positibo bana dago jarduketaren inguruan. Azkenik, gaia aztertu

<sup>7</sup> Une hartan, enpresa-sektore publikoa berregituratzeko prozesua egikaritzen ari zen, eta haren ondorioz, Sodenak Nafinco xurgatu egin zuen.

ondoren, Nafarroako Gobernuak ebatzi zuen ez zela beharrezkoa horri buruzko akordiorik hartzea.

Nafincok, azkenean, Sunsundegui erosteko aukera baliatu egin zuen, arrazoi hauek aipatuz:

- a) Eskualdean ahalik eta enplegu gehien mantentzea.
- b) Enpresan ibilgetutako finantza-baliabideak ahalik eta gehien berreskuratzen saiatzea eta haien itzulkina maximizatzea.
- c) Sunsundegui behin betiko irtenbidea bilatzeko denbora irabaztea, enpresari bideragarritasuna emanen zion bazkide bat sartuz, aldi baterako jarduketatzat hartu behar baitzen Nafincoren jarduketa hori.

#### SUNSUNDEGUI SOZIJETATE PUBLIKO BIHURTZEA (2011-2013)

2011ko azaroaren hastapenetan, Sunsundeguien akzioen salerosketa formalizatu zen, eta horren ondorioz, Sodenak akzio guztiak erosi zituen.

Bestalde, 2011ko abenduaren azken egunetan, Nafinco bereganatu ondotik, Sodenak formalizatu zuen Sunsundegui emandako mailegu arruntak, 3,9 milioioak, kopuru horretako partaidetza-mailegu bihurtzea.

2012ko ekainean, Sodenako kudeatzaileak administrazio kontseiluari jakinarazi zion Sunsundegui finantzaketa gehigarria behar izan baino lehen bazkide bat aurkitzeko aukerak urriak zirela, eta une horretan inbertitzailea izan zitekeen bakarra zegoela. Konpainia itxi eta konkurtso-prozesu bat egiteko aukera ere aztertu zuen kontseiluak, adieraziz aukera hori Sunsundeguiko zuzendaritzari jada planteatu zitzaizola. Azkenik, 1,2 milioiko mailegu arrunta ematea adostu zuen kontseiluak, hura partaidetza-mailegu bihurtzeko aukera gordez. Emakida hori langile guztien soldata murriztu eta diruzaintzaren kudeaketa zuzendaritzaren eta Sodenaren ordezkartzaren artean erkidetzaren baldintzapean jarri zen.

2012ko abenduan, administratzaile bakarra kargutik kendu zuten eta Sodenaren ordezkari batek hartu zuen kargu hori. Aldi berean, zegoen inbertitzaile potentzialak atzera egin zuen egun haietan.

- 2013ko urtarrilean, Sunsundeguien egoera zela eta, konpainiaren hartzekodunen aurre-konkurtsua eskatzea erabaki zen; izan ere, une hartan, Sodenak 25 milioiko arrisku bizia zuen, finantza entitateek finantzaketa bertan behera utzi zuten eta jarduera gelditu egin zen.

2013ko otsailean, Volvorenkin zenbait bilera egin ondotik, Sunsundeguiko zuzendaritzak bideragarritasun plan bat aurkeztu zion Sodenari, eta bertan, beste neurri batzuen artean, honek 35,53 milioiko kapital ekarpena egitea eta 78 lanpostu desagertzea jaso zen.

2013ko martxoaren 5ean, kudeatzaileak Sodenaren Administrazio Kontseiluari jakinarazi zion: *“... Sodenaren ikuspuntutik eta bere inbertsio-irizpideen arabera, hartzekodunen konkurtsua aurkeztu beharko litzateke, eta gainera, eragiketarako teknikoki narriadura nabaria dakar diruzaintzarentzat, orain arte egindako ekarpenengatik eta emandako abalengatik. Hala ere, jakitun da irtenbide horrek izanen litzukeen ondorioez, eta laguntza finantzario gehigarriak funtsean Gobernuari berari legezkiokoen irizpide sozioekonomikoetan oinarritutako erabakia izan behar duela...”*.

Horren inguruan, txosten bat dago, non Sodenak aukera guztiak aztertu baitzituen, eta bakoitzaren kostuak zenbatetsi zituen, xehetasun hauen arabera:

Aukera	Kostu zenbatetsia
Hartzekodunen konkurtsu bidez ixtea	25,21 milioi
Konpainia modu ordenatuan ixtea, eta zor guztiak likidatu ondoren, haren desagitea kudeatzea	36,26 milioi
Sundsundegui langileei saltzea	33,66 milioi

Kontseiluak erabaki zuen Nafarroako Gobernuak irtenbiderik onena aztertuko zuela Sunsundegui jarraipena emateko egin beharreko ekarpen gehigarriak egiteko, horrek Sodenako diruzaintzaren egoerari kalterik egin gabe, eta haren inbertsio politika aldatu gabe.

2013ko martxoaren 8an sinatu zuen Sodenak Asmo Akordioa Sunsundeguiko zuzendaritzarekin eta bertako sindikatu nagusiarekin; haren bitartez, Sodenak Sunsundeguiko akzioen ehuneko 51 zuzendaritza postuetan zeuden bost pertsonari saldu behar zizkien, eta gainerako ehuneko 49a 133 langileri euro baten truke, Sunsundegui aurkeztutako bideragarritasun plana eta irizpide sozioekonomiko hauek oinarritzat hartuta: zuzeneko 140 enplegu eta zeharkako beste hainbeste mantentzea; Nafarroako Foru Ogasunarentzako tributuen bidezko diru-sarrerak urtean 1,5 milioi ingurukoak izatea, urtean bi milioi inguruko litzatekeen balio erantsiaren gaineko zergari dagozkionez gain; Gizarte Segurantzarako kuotak sortzea, langabezia-prestazioak murriztuz; eta gizarte-giro baketsua ereitea krisiak zigortutako eremu batean.

2013ko martxoaren 27an sinatu zuen Sodenak Sunsundeguiaren akzioen salerosketarako konpromisoaren kontratu pribatua, aurreko akordio horretatik eratorritakoa. Akordio horretan, haren baldintza etengarriztat hartzen ziren aurkeztuta zegoen azkentzeko enplegu erregulazioko espedientea ez onestea, eta 2013 eta 2014ko diruzaintza-beharrak zenbatetsiko zituen bideragarritasun-plana ez egitea. Egun hartan bertan, azkentzeko EEE hori onetsi zen 61 pertsonarentzat, hau da, plantillaren ehuneko 28rentzat.

### SODENAK SUNSUNDEGUI BERTAKO LANGILEEI SALTZEA (2013)

2013ko maiatzaren 10ean, akzioen salerosketaren eskritura publikoa formalizatu zen, eta aurreko bi baldintzak betetzat eman ziren. Eskritura horren arabera, Sodenak 35,23 milioi euroko balioa zuten jarduketak egin zituen Sunsundeguiaren alde, xehetasun hauekin:

- Lehendik zituen partaidetza-maileguak kapitalizatzea, sortutako interesak barne, 13,55 milioiko zenbatekoan guztira.
- Sodenak abal bidez bermatutako kreditu-kontuak kitatzeko eskudiruzko ekarpena, 9,75 milioikoa guztira.
- 6,1 milioiko ekarpena eskudirutan, zirkulatzailaren beharretarako.
- 3,4 milioiko ekarpena eskudirutan, Sodenak abal bidez bermatutako confirming lerroak ezerezteko.
- Eskudirutan egindako 2,43 milioi euroko ekarpena, zegoen zerga-zorra ordaintzeko.

Bestalde, jabetza berria behartuta geratu zen 250.000 euroko ekarpena egitera<sup>8</sup>, sozietatearen jarduerari eustera, eta Sunsundegui epe jakin batzuetan salduz gero Sodenari salmenta-prezioaren ehuneko jakin bat ordaintzera.

Kontratu horren esparruan, eskualdatuko ziren instalazioen egoera irregularra islatu zen, ez baitzuten jarduera-lizentziarik, eta halaber islatu zen sozietateari lizentzia hori epe laburrean lor zezala eskatzeak zekarren arriskua. Hori dela eta, kontratuak klausula bat zuen eta, klausula horren arabera, kontratua sinatzen zenetik hiru urteko epean inguruabar hori gertatuz gero, lizentzia hori lortzeko behar ziren inbertsioen ehuneko 50eko ekarpena eginen zuen Sodenak.

### SODENAREN LAGUNTZA FINANTZARIOA SUNSUNDEGUIRI (2017-2024)

- 2016ko maiatzean, Sunsundegui Sodenari eskatu zion bete zezala 2013ko kontratuan hartu zuen konpromisoa; hau da, jarduera-lizentzia lortzeko behar ziren inbertsioen ehuneko 50eko laguntza finantzarioari zegokiona.

xxx2016ko ekainean, Sodenako Administrazio Kontseiluak gai hori aztertzea erabaki zuen, instalazioak indarrean dagoen araudira egokitzeko inbertsioa egiteko Sunsundegui Sodenari helarazten zion laguntza-eskaera berri batekin batera.

<sup>8</sup> Ekarpene horren bitartez kapitalizatu egin ziren ordaindu gabe zeuden eta zenbateko hori egiten zuten langile-ordainsariak.

Horren harira, 2016ko irailean, Sunsundegui laguntza horren onuradun izateko bete behar zituen konpromisoak ezarri zituen Sodenako Administrazio Kontseiluak:

- a) Txosten ekonomikoa, konpainiaren 2015eko kontu auditatuei eta 2016ko kontu eguneratuei buruz.
- b) Aurreikusitako inbertsioari buruzko beste kalkulu bat, instalazioak legezatzeko behar-beharrezkoa zen zenbatekoa banakatuta.
- c) Aurrekontuan jasotako obra guztiak egiteko konpromisoa.
- d) Emaidza positiboak izanez gero edo sozietatea salduko balitz, Sodenak jarritako kopuru osoa edo haren zati bat itzultzea, dibidenduak banatu aurretik betiere.

2016ko abenduan, Sodenak akordio bat sinatu zuen Sunsundeguirekin. Akordio horretan, jarduketa horietarako 1,7 milioiko laguntza finantzarioa hitzartzen zen gehienera ere, Sunsundeguien atal horretako fakturen ehuneko 33 ordainduz. Gertatu ez ziren hiru kasutan, Sunsundegui diru hori itzuli egin beharko zukeen. Laguntza hori 2017an, 2018an eta 2019an egikaritu zen, eta azkenean, 1,51 milioikoa izan zen.

- 2018ko abenduan, xurgapen bidezko bat-egite bat formalizatu zen, eta haren bitartez, Suncove SA eta Suministros y Servicios Unificados de Carrocería SL sozietateak xurgatu zituen Sunsundegui; operazio harekin Suncoveren trenbide-negozioa behin betiko erauzi zen.

- 2015-2019 aldirian, Sunsundeguien egoera nabarmen hobetu zen egindako inbertsioekin.

Hobekuntza hori bi egitate nagusitan nabaritu zen: alde batetik, kanpo-aholkularitza batek egindako txosten batek 2019an B+ kreditu-kalifikazioa eman zion konpainiari; bestetik, 2019an, jasotako eskaeren errekorra lortu zuen Sunsundegui; eskaera horiek 2020an gauzatu ziren, eta aztergai den aldiko negozio zifra maximoa lortu zuen orduan, 73,17 milioira iritsi baitzen.

- Hala ere, 2020ko martxoan COVID-19a agertzeak sektorearen jardura geldiarazi egin zuen, eta nabarmen moteldu zen jasotako eskaeren kopurua. Hala, 2020ko irailean Sunsundegui lau milioiko laguntza eskatu zion Sodenari.

2020ko azaroaren erdialdera, Volvok asmoen gutun bat sinatu zuen, eta bertan adierazten zuen etorkizunean Sunsundeguien "partner" izan zitekeela autobus elektrikoaren garapenarekin eta digitalizazioarekin; eta horretarako, bigarren konpainia horrek hobetu beharreko eremuak ezartzen zituen.

Aurreko guztia kontuan hartuta, 2020ko azaroaren hondarrean Sodenaren Administrazio Kontseiluak<sup>9</sup> Sunsundegui 2,4 milioiko laguntza finantzarioa ematea erabaki zuen, eta operazioaren baldintzat ezarri zuen jabeek 1,6 milioiko kapital-ekarpina egitea eta zuzendaritzako kideen soldatak murriztea. Sunsundeguiko administratzaile bakarrak gutun bat bidali zion Sodenari adieraziz, besteak beste, aurreko proposamenari uko egiten ziola.

2020ko abenduaren erdialdera, 2021eko apirilera arte 245 langileren (plantillaren ehuneko 96ren) kontratuak eten eta beste 11ren (langileen ehuneko lauren) lanaldia murriztu zuen aldi baterako enplegu erregulazioko espediente batekin batera, Sodenaren Administrazio Kontseiluak<sup>10</sup>, gutun hori aztertu ondotik, erabaki zuen aurreko baimena indarrik gabe uztea eta beste ekarpen bat egitea, gehienez ere 3,4 milioikoa, aurreikusitako 2,4 milioikoaren ordean. Ekarpen hori eman ahal izateko zenbait puntu bete beharko ziren, eta haien artean azpimarragarriak dira:

- a) 1,1 milioiko banku-mailegu baten ekarpina egitea.
- b) Konpainiaren jabeek ekarpina egitea, kapitalaren titulartasunaren arabera zenbateko batean.
- c) Zuzendaritzako kideen urteko soldata gordina ehuneko hamar murriztea, murrizketa hori bi eta bost urte bitartean mantenduz, epe hori helburu jakin batzuk lortzearen arabera berrius zitekeelarik.

<sup>9</sup> Erabaki horri buruzko bozketan, haren sei kideetatik bostek alde bozkatu zuten, eta seigarrena ez zegoen erabakiarekin ados.

<sup>10</sup> Kasu honetan, kontseilua osatzen duten sei kideetatik lauk alde bozkatu zuten, batek abstentziora jo zuen eta beste batek aurka bozkatu zuen, akziodunen konpromisorik eza proiektuarekiko eta Sunsundegui etorkizunera begira aurkeztutako salmenta-datuen errealismo falta argudiatuta.

d) Zuzendaritzako lantaldeak proiektuarekin zuen konpromisoa adieraztea.

Berriz ere, Sunsundegui beste gutun bat bidali zuen, aurreko b), c) eta d) puntuekiko desadostasuna adieraziz. Gutun hori kontuan hartuta, 2020ko abenduaren hondarrean, Sodenaren Administrazio Kontseiluak<sup>11</sup> aurreko 3,4 milioiko baimena mantentzea erabaki zuen, hasieran aurreikusitako kopurua txikiagoa zen arren, baina emateko baldintzak aldatu egin zituen, azkenean honako hauek baitziren:

- a) Sodenari baimen ezeztazina ematea gutxienez urtebetez, kapital sozialaren gehiengoa edo osoa beretuko lukeen plan industrialaren duen bazkide bat bilatzeko, Sunsundeguiaren bideragarritasuna eta jarraipena bermatzeko.
- b) Jabeek 1,1 milioiko banku-mailegu baten ekarpena egitea.
- c) Soldata-murrizketa, plantillak erabaki behar zuen ehuneko eta iraupeneko, helburu jakin batzuen lorpenaren arabera berrikusten ahal zena.
- d) Sodenak egiaztatzea noraino iristen diren Nafarroako Industriaren Elkarteak egindako 4.0 enpresa egoeraren diagnostikoa eta digitalizazio-proiektua.
- e) Sozietateak konpromisoa hartzea lehenbailehen plan zehatz eta integral bat aurkezteko, hartarako behar den finantzaketa barne dela, aukera eman behar duena konpainia modernizatzeke, automatizatzeke, gaitzeke eta ekoizpena hobetzeko, 4.0 enpresaren irizpideekin bat etorritik.
- f) Zuzendari nagusiak gutxienez bi urtez irauteko konpromisoa.

- 2021eko urtarrilaren amaieran, banku-erakundearen finantzaketa-konpromisoaren gutuna, 2021, 2022 eta 2023rako soldatak izozteari buruzko langileen akordioa, eta zuzendaritzako kideen ordainsariak ehuneko bost murrizteari buruzko akordioa jaso ondotik, eta gainerako baldintzak betetzen zirela egiaztatu eta gero, 3,4 milioiko partaidetza-maileguaren poliza sinatu zen.

Mailegu hori ematea Sodenari 2021erako abalarekin eta maileguak emateko emandako baimen globalaren barnean kokatu zen, Nafarroako Gobernuaren baimen espezifikorik behar izan gabe, Sunsundegui aurretik emandako laguntzak jada kapitalizatuak zeudelako eta ondoren sozietate hori saldu zelako.

2021eko apirilaren erdialdean, kontratuak eteteko beste ABEE bat onetsi zen, 2021eko abenduaren amaierara arte 270 langileri eragin ziena.

- Pandemiaren inpaktua zela eta, KOIk bermatutako maileguak ere jaso zituen Sunsundegui finantza erakundeetatik, guztira zortzi milioi.

- Inbertitzaile berrien bilaketak ez zuen fruiturik eman, eta COVID-19a zela-eta autobus enkaeraren izandako beherakadak areagotutako arazoekin, 2022ko uztailean, COFIDESek onetsi zuen Sunsundegui 4,5 milioiko partaidetza-mailegu bat ematea, eta beste 4,4ko mailegu arrunt bat, muga-eguna 2028ko abenduaren 31n izanik.

Emakida horren ondorioa izan zen 3,4 milioiko maileguaren gabealdia eta epemuga luzatu egin behar izan zirela, finantzaketa berrira egokitu ahal izateko.

- 2023ko martxoan, Volvok iragarri zuen itxi egin behar zuela bi autobus modelo egiten zituen Poloniako ekoizpen-instalazioa, eta elkarrizketak hasi zituen Sunsundeguiarekin, haien fabrikazioa azken honetara eramateko.

2023ko apirilean, Nafarroako Gobernuak "support letter" bat igorri zuen, zeinetan konpromisoa hartu baitzuen Volvok proiektuak arrakasta izan zezan enpresak beharrezkoa zuen finantzaketa lor zezan beharrezko laguntza emateko.

2023ko maiatzean, Volvok eta Sunsundegui asmoen gutun bat sinatu zuten, Volvoren modelo horien karrozeria-lana Sunsundeguiarekin eramateko.

2023ko urrian, Volvok eta Sunsundegui bi hitzarmen sinatu zituzten: bata, aipatutako bi modeloen transferentzia teknologikoa doan eta ez esklusiboki lizentziatzeke; eta, bestea, modelo horiek ekoizteko. Ekoizpen-hitzarmen horrek ez zuen aintzat hartzen Volvok erosteko konpromisorik, baina bai jasotzen zituela salmenta-prezioak eta ekoizpen-ahalmena pixkanaka

<sup>11</sup> Proposamen horren bozketaren emaitza izan zen aldeko bost boto eta aurkako bat.

ezartzeko egutegi bat, 2024ko bigarren seihilekoan eguneko 0,5 autobus egitetik 2026ko uztailean eguneko bi autobusera iristekoa.

Operazio horren potentziala ebaluatzeko, Sunsundeguiak negozio plan estrategiko bat landu zuen, 2028rako 150 milioitik gorako salmenta-fakturazioak lortzea aurreikusten zuten hipotesiak abiapuntu zirela, eta, gainera, 2025etik aurrera autobus elektrikoaren karrozeria-lana sartzea.

Plan hori kanpoko aholkularitza-enpresa batek berrikusi zuen, eta IBR bat jaulki zuen hark; bertan, beren-beregi aipatu ondoren erabilitako zifrak Sunsundeguiak emandakoak zirela, auditatu eta kontrastatu gabeak<sup>12</sup>, AMIA analisi bat egiten zen, zeinak ez baitzituen zenbatespenak baztertzen, baina haren hipotesien arrisku nabariak identifikatzen zituen, EBITDA marjinaren eta kutxa-marjinaren aurreikusitako emaitzak baldintzatu zituzketenak. Hauek izan ziren detektatutako arrisku nagusiak:

- a) Israelgo Gerra: Sunsundeguiaren bezero nagusietako bat Israelen kokatutako enpresa bat zen. Hango gatazka militarrek aldaraz zezakeen haren eskaera, eta horrek eragin zuzena izanen luke konpainiaren jardueran.
- b) Autobus elektrikoaren merkatua: merkatu horretan sartzeak inbertsio garrantzitsuak eginarazten zituen, lehendik zegoen ekoizpen-instalazioa egokitzeko, eta horrek eragina izan zezakeen fabrikatzen ziren gainerako modeloetan.
- c) Ekoizpen-erritmoa: ekoizpen-eraginkortasuna eta materialen hornidura-katea bi faktore erabakigarri ziren, egindako planaren helburuak lortzeko behar zen ekoizpen-erritmoa mugarrizten zutenak. Sunsundeguiak bigarren ekoizpen-lerro bat martxan jartzeko pausoak eman bazituen ere, aipatutako faktoreetan edozein gorabeherak ondorio zuzena izanen zuen ekoizpen-erritmoan, eta horrek ez zukeen utziko planean adierazten ziren zifretara iristen.
- d) Finantzaketa-beharrak: planaren hipotesiek zeharbidez konpainiaren finantza-egitura konpondu izana aurreikusten zuten. Hori gerta zedin, epe laburrerako finantzaketa oparua eta epe luzearako bere zorraren berregituraketa behar zituen Sunsundeguiak. Alderdi horietako edozeinetan atzerapen bat izateak arriskuan jarriko zukeen negozio plana lortzea.

• 2023ko azaroaren erdialdera, Sunsundeguiak bederatzi milioiko laguntza eskatu zion Sodenari, bai eta pabiloi bat erosi eta egokitzeko azterketa bat ere, alokairuan hartzeko, 2025etik aurrera erosteko aukerarekin.

Sodenak txosten bat egin zuen eta Administrazio Kontseiluari helarazi zitzaion, besteak beste, Sunsundeguiaren egoera finantzario delikatuak aipatuz, eta esanez eskari nabarmena zegoen arren, funtsezko auzia zela enpresa gai izanen ote zen hari erantzuteko. Era berean, eskatutako laguntza ematearen alderdi positiboak eta negatiboak identifikatu ziren; eta ondorioztatu zen ezen, eskualdean izanen zuen eragin sozioekonomikoa kontuan hartuta mailegu hori onartzen bazen, zirkulatuzailearen finantzaketa-lerroak berritu eta zabaltzearen eta mailegu-ematearen borondatez kapitalizazioa eskatu ahal izatearen mende jarri beharko litzatekeela. Azkenik, emakida hori Nafarroako Gobernuari helaraztea proposatu zuen, azter eta berrets zezan.

2023ko azaroaren hondarrean, Sodenaren Administrazio Kontseiluak aho batez erabaki zuen Sunsundeguiari hiru milioiko partaidetza-mailegu bat ematea, eta antzeko beste sei milioiko laguntza gehigarri bat, honako baldintza hauen mende:

- a) Gobernu korporatibo zorrotza ezartzea, Sodenarekin adostutako administrazio kontseilu baten osaera definituz, honako eskema honen arabera: Sodenak izendatutako bi pertsona, zuzendaritza-lantaldeko kide bat, zuzendaritzako kide ez diren langile edo akziodunei lotutako bat, eta hiru aditu independente.
- b) Zirkulatuzailea finantzatzeko lerroak lortzea finantza entitateetatik.

Kasu horretan, aintzat hartzen zen eragin sozioekonomikoa zen: lanpostuen galera – lanpostu horietan ari ziren langileen ehuneko 50-60 Nafarroan bizi zen–; erakarri behar zuen zerga-bilketaren beherakada; eta Nafarroako hornitzaileengan eragin behar zituen galerak (2019-2023 aldian, 50,65 milioikoak izan ziren erosketa horiek).

<sup>12</sup> IBRa landu zuen enpresak hori aipatu zuen egin zituen geroztiko eguneratze guztietan ere; hurrengo orrialdeetan zehazten dira haiek.

2023ko abenduaren erdialdera, Sodenak baimena eskatu zion Nafarroako Gobernuari lau milioirainoko mailegu bat emateko, adieraziz hasiera batean hiru ordainduko zirela eta, gainera, onuradun bakarrari emandako maileguen muga salbuesteko baimena eskatuz, 7,13 milioikoa baitzen muga hori 2023rako eta, aldez aurretik, 3,4 milioi eman baitzitzaizkion jada. Hala, erabaki horren azken baimena Nafarroako Parlamentuak berretsi beharko zukeen, 13/2007 Foru Legean, Nafarroako ogasun publikoari buruzkoan ezarritakoaren arabera.

- Aurrekoa kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat aurkeztu zion Nafarroako Parlamentuari, aurreikusitako lau milioirainoko mailegua gehitzean aipatutako muga Sodenak gainditu ahal zezan baimena eskatzeko. Espediente horrek barne hartzen zituen Sunsundegiaren egoerari buruzko txostenak, Sodenaren Administrazio Kontseiluaren aktak, Estatuaren laguntza izan zitekeenari buruzko analisiak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Nagusi Teknikoaren txostena, beharrezko memoriak eta eraginari buruzko txostena.

216/2019 Foru Dekretuak aurreikusten duenez, Nafarroako Gobernuak sozietate publikoen maileguak baimendu ahal izateko, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak (NEKP) txosten bat egin behar du sozietatearen finantza-gaitasunari buruz; eta Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiak txosten bat egin behar du, eragiketak aurrekontu-ekitaldian eta urte anitzeko esparru ekonomikoan izaten ahal duen eraginari buruz, kontabilitate nazionalaren ikuskeratik. Espedientean ez ziren dekretuaren eskakizun horiek gehitu, irizten zelako foru legearen helburua ez zela lau milioiko mailegua ematea, baizik eta onuradun berberari emandako maileguen muga gainditu beharra.

- Nafarroako Parlamentuak onetsi egin zuen 23/2023 Foru Legea, abenduaren 26koa, Sodenari baimena emanez Sunsundeguri lau milioirainoko mailegua emateko.

Mailegu hori 2023ko abenduaren 27an formalizatu zen, eta hasieran aurreikusitako lau milioietatik hiru erabili ziren.

- 2024ko otsailaren erdialdera, Sunsundegui konpainiaren egoerari buruzko txosten bat igorri zion Sodenari, eta bertan agerian geratu ziren haren arazoak; besteak beste, honako hauek: lantegian stockak pilatzen ari zirela, horniduren epeekin arazoak zeudela, langileen efizientzia murrizten ari zela eta banku-erakundeekin gatazkak zeudela.

- 2024ko otsailaren hondarrean, Akziodunen Batzar Nagusia egin zuen Sunsundegui, eta administratzaile bakarra kargutik kentzea eta zuzendari nagusi izendatzea erabaki zuen, baita Sodenarekin adostutako Administrazio Kontseilu berria izendatzea ere.

- Sunsundegiaren 2023ko kontabilitate-itxiera aurreikusitakoa baino okerragoa izan zenez, eta galerak 7,5 milioitaraino iritsi zirenez, enpresak bere negozio planaren gaineko IBRa eguneratzeko enkargua egin zuen. Txosten hori 2024ko martxoan landu zen, eta konpainiak data horretan zuen egoera aurkeztu zuen; funtsean, gorabehera hauek azaldu zituen:

- a) 2024ko otsailean eta martxoan ekoizpena ia geldituta zegoen likidezia faltagatik, eta hornitzaileei egin beharreko ordainketak erregularizatu ez zirelako.
- b) Hornitzaileei ordaintzeko atzerapen hori zela eta, haiek ez zeuden prest beren zerbitzuak ematen jarraitzeko.
- c) Produktuen eskari handia zuen Sunsundegui, eta horri aurre egin ahal izateko normaltasunez ekin behar zion berriro jarduerari.
- d) Sunsundegui martxoaren amaieran epemuga bat zuen bere kreditu-lerroetan eta, aurreikusitako negozio plana bete ahal izateko, lehenbailehen berritu eta luzatu behar zuen hura.

Aurreko txostenean adierazitako arriskuak berretsiz amaitu zuen azterketa.

2024ko martxoaren amaieran, Sunsundegui lortu zuen zenbait finantza entitatek zirkulatzailearen finantzaketa 2,7 milioitan handitzea. Aldaketa hori kontuan hartuta, 2024ko apirilean eguneratu egin zen aurreko IBRa eta, besteak beste, hau adierazi zen:

- a) Ekoizpen-erritmoa murriztea; horrek aktibo zirkulatzailea gehiago finantzatu beharra zekarren, produzitzen jarraitu ahal izateko.
- b) Ezin izan ziren hornitzaileekiko zorrak erregularizatu, gaitasun finantzariorik ez zegoelako, eta ondorioz, lehentasunezkoa izan zen Sodenak sei milioi ematea likidezia gorde ahal izateko eta negozioan ahalik eta gutxien eraginen zuten ordainketa-akordioak lortzeko.

- c) Zirkulatzailaren 2,7 milioi finantzatzea baino lortu ez zenez, planak beharrezkotzat jotzen zuen Sodenak hasiera batean eskatutako sei milioiez gain beste lau milioi sartzea, aintzat hartuta zeuden eskaerak produzitu ahal izateko.
- d) Sunsundegui 2,5 milioiko zor konpromisoak aurkezten zituen 2024ko bigarren seihilekoan; baina diruzaintza planak bete ahal izateko, bere zor konpromisoen gabealdi bat eskatzea proposatzen zuen, berregituraketa prozesu bati ekin ahal izateko.

Txostenaren ondorio nagusiak bi ziren: alde batetik, konpainiak funtzionatzeko zituen finantzaketa beharrak hamar eta 12 milioi arteko tartean zenbatesten zituen, aurreikusitako planak zekarren produkzio testuinguruan; eta Sunsundegui egikaritu nahi zuen negozio-eredua modu errealistan zalantzan jarri beharra aipatzen zen.

- 2024ko apirilaren erdialdean, alde zurretik administratzaile bakarra izana zen zuzendari nagusia kargutik kendu zuten.

- 2024ko apirilaren erdialdean, Sodenaren Administrazio Kontseiluari jakinarazi zitzaion Sunsundegui kanpoko enpresa bat kontratatu zuela industria-eraldaketarako plan bat lantzeko. Era berean, aho batez berretsi zuen 2023ko azaroan adostutako sei milioiko mailegua emateko baimena, Sodenaren txosten tekniko bat aztertu ondoren, non honako hau adierazten baitzen: *“... Kontseiluari jakinarazten zaio konpainiari finantza-laguntza emateko aukera duela, eskatutako zenbatekoa duen partaidetza-mailegu baten bidez, eskualdean izanen duen eragin sozioekonomikoa eta dauden konpromisoak kontuan hartuta, betiere Nafarroako Parlamentuaren alde zurreko onespina eta finantza entitateek zirkulatzaila-polizak birnegoziatzea eta handitzea lortzen bada, eta jakitun izanik hau ez dela Sunsundeguiaren egoeraren behin betiko irtenbidea, baizik behin-behineko beste irtenbide bat, harik eta bazkide industrial bat, antolakuntza industrialean sendotasunaz gain bideragarritasun finantzarioa ekarriko duena, kapitalean sartzea lortzen den arte...”*.

Erabaki hori aintzat hartuta, Sodenak mailegu hori emateko baimena eskatu zion Nafarroako Gobernuari.

2024ko apirilaren hondarrean, Sunsundegui bere industria-eraldaketarako plana aurkeztu zuen, eta haren konklusioa zen egoera zaila zela finantzen eta industriaren ikuspegitik, honako arazo hauen ondorioz:

- a) Material falta zuten autobus asko zeuden eginbidean, hain zuzen ere, aurreko hainbat erabakiren ondorioz, hornitzaile batzuek atzeratu egin baitzuten material eta osagaien hornidura. Egitate horrek autobusen muntaketa eragozten zuen, alfer-denborak, muntaketa-sekuentzian aldaketak, kalitate-arazoak eta abar sorrarazten zituen, eta azken batean produkzio-kostuak handitu egiten zituen, produktibitatea galdu eta kalitaterik ezaren kostuak agertzen zirela eta. Horrek guztiak, gainera, autobusak entregatzeko atzerapena erakartzen zuen.
- b) Bestalde, egiturazko arazo bat zegoen enpresaren funtsezko prozesuen antolaketarekin eta kudeaketarekin zerikusia zuena eta honako hauekin lotuta zegoena: kontratuak eskaini eta ixteko prozesua, proiektuen definizioa, autoen diseinua, hornikuntza-katea, ekoizpenaren plangintza eta programazioa, biltegiaren kudeaketa, materialaren prestaketa eta ekoizpenaren eta muntaketaren kontrola.

Volvorekin sinatutako akordioek sortutako aukera aprobetxatu nahi bazen, egutegi baten arabera ezarri beharreko jarduteko ildoak jasotzen zituen planak.

- Sei milioiko mailegua emateko Nafarroako Gobernuak emandako baimenari buruzko espedienteak 216/2019 Foru Dekretuak eskatutako dokumentazio guztia bildu zuen, eta, zehazki, honako hau:

- a) Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren txostenak zioen maileguak itzultzeko gaitasuna negozio plana betetzearen, produkzioaren efizientziaren eta zorraren berregituraketaren mende zegoela. Gainera, maileguk huts eginez gero, Sunsundeguiaren orekari eraginen ziola adierazi zuen.
- b) Sodenaren eskabidean jasotako arrisku-txostenak adierazten zuen Sunsundegui ez zuela aktibo liberrik mailegua edo bestelako berme irmorik bermatzeko; eta partaidetza-mailegua izanen zenez laguntza, legez ezin zitzaiola eskatu sozietateari bermeak eman zitzala; bidenabar, Sodenaren kontseiluko kideek bazekiten laguntza finantzarioa proiektuaren arrisku

eta menturara ematen zela, eta mailegua ordaintzen ez bazen, emandako zenbatekoaren ehuneko 100 galduko zela.

- c) Estatuaren laguntzen araubidea zuzentzen duen Europako araudia betetzen zela frogatzen zuen txostena, Sodenak eskatuta aditu batek egina.
- d) Kontu-hartzaitzako zuzendari nagusiaren eragozpen-txosten ez-etengarria; bertan ondorioztatzen zuen eragiketaren finantza-arrisku handiak eta beste inguruabar batzuek eragin zezaketela Estatuaren laguntzat hartzera.
- e) Aurrekontuetako zuzendari nagusiaren txostena, operazioaren arrisku finantzario handia azaltzen zuena eta konklusio hau ateratzen zuena: *“Lehen azaldutakoagatik, eskaeran aurkeztutako dokumentazioa eta espedientean dauden txostenak ikusita, eta Nafarroako Gobernuak adierazitako interesa kontuan hartuta, operazioa baimentzeko Nafarroako Gobernuaren erabaki-proposamena egin da, eta era berean, ohartarazi nahi da eragiketa horrek arrisku finantzario handia duela, espedientean eta txosten honetan ageri den dokumentazioan jasota dagoen bezala”*.

Espediente honi dagokionez, baina espedientearen parte izan gabe, Ondare Zerbitzuaren txosten bat dago, Aurrekontuen zuzendari nagusiarena baino lehenagokoa; eta bertan, besteak beste, honako puntu hauek azaltzen dira:

- a) Sodenak Sunsundegui emandako maileguen zenbatekoak, 2023ko abenduan emandakoa ere barnean dela, guztiz hornituta zeudela haien narriaduragatik.
- b) Sunsundeguiarentzat egindako finantzaketa-eskaera ez zela kaudimenduna den eta bere ekoizpena zabaltzeko inbertsioak behar zituen enpresa batentzat egina, baizik eta 2021etik porrot teknikoan zegoen eta desegiteko arrazoia lukeenarentzat, 20/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koagatik izan ez balitz, hain zuzen ere, dekretu horren arabera, desegiteko kausatzat ez baitziren kontuan hartuko 2020ko eta 2021eko galerak 2024ko ekitaldia amaitu arte.
- c) 2013tik ari zirela bilatzen, halakorik aurkitu gabe, Sunsundegui kapital-ekarpena eginen zion bazkide industrial bat.
- d) Sunsundegui akziodunak ez zirela inolako arriskurik hartzen ari, eta sektore publikoak bakarrik beretzen zuela arriskua. Izan ere, Sunsundegui emandako finantzaketak ez zuen bermerik, enpresak ez baitzuen aktiborik operazioa bermatzeko eta, gainera, bigarren hipotekak baitzuten.

Txostenak, azken batean, finantza ikuspuntu hutsetik, aholkatzen zuen eskatutako mailegua ez zedila eman, eragiketaren arrisku handia zela eta. Aldi berean, adierazten zuen ondorio horretarako ez zirela kontuan hartzen ondorio sozioekonomikoak (enplegua, eragindako diru-bilketa, eta abar), beste instantzia batzuetan aztertu beharko lirakeenak.

Alderdi horiek ia guztiak aipatutako txostenean jaso zituen Aurrekontuen zuzendari nagusiak, eta azkenean, Nafarroako Gobernuak eragiketa baimendu zezan erabaki-proposamena egin zuen.

- Nafarroako Parlamentuak 4/2024 Foru Legea, maiatzaren 2koa, onetsi zuen, eta haren bitartez Sunsundegui sei milioiko mailegua emateko baimena ematen zitzaion Sodenari.

Maiatzaren 6an formalizatu zen mailegu hori, eta kontratua sinatzean ordaindu ziren sei milioietatik bi. Hurrengo ordainketak maiatzaren 28an (1,5 milioi), ekainaren 7an (milioi bat) eta 2024ko uztailaren 2an (1,5 milioi) egin ziren.

#### SODENAK SUNSUNDEGUIRI 2024KO MAIATZEAN EGINDAKO EKARPENAREN ONDOTIK GERTATUAK

- 2024ko ekainaren 6an, Sunsundeguiaren urteko kontuen auditoretza-txostenak funtzionamenduan dagoen enpresarekin lotutako ziurgabetasun materialari buruzko honako paragrafoa gehitu zuen: *“... Azpimarra jartzen dugu urteko kontuen 2 (e) oharrean adierazten denean, hau da, Sozietateak 7.491.104 euroko galera garbiak izan dituela 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian, eta data horretan, Sozietatearen pasibo korrontek 5.039.887 euro gehiagokoak zirela aktibo korrontek baino. 2 (e) oharrean azaltzen denez, gertakari edo kondizio horiek, 2 (e) ohar horretan adierazitako beste kontu batzuekin batera, ziurgabetasun*

*materiala dagoela adierazten dute, zalantza sakonak sor ditzakeena Sozietateak enpresa bezala funtzionatzen jarraitzeko duen gaitasunari buruz ...”.*

- 2024ko uztailaren 1etik 5era bitartean, Volvo eta Sunsundeguien arteko mezu elektronikoko batzuk ageri dira, Volvok akordioei uko egin behar diela esanez, eta hori jakinarazteko baldintzak negoziatzen ari zirela. Zehazki, nahiz eta Volvok uko egin Sunsundegui bi modelo berriak fabrikatzeari, haiek ekoizteko izandako arazoak zirela eta, harreman komertzialak mantendu egiten ziren Volvok erosten zituen gainerako modeloak eskuratzeko.

- 2024ko abuztuan, Sunsundeguien IBRa eguneratu egin zen, eta lehendik zeuden eta indarrean jarraitzen zuten arriskuei beste hauek gehitu zitzaizkien:

- a) 2024ko uztailan, Sunsundegui egunean 1,5 autobuseko erritmoan ari zen saltzen, eta bere negozio planak aurreikusten zuen egunean bi autobus saltzera pasatu behar zuela onbideratzeko. Ekoizpen-erritmoa funtsezko osagaia da planaren hipotesi horietan, eta arazoek bere horretan diraute ekoizpen-helburu horri nabarmen eragin diezaiketeten prozesuko puntu jakin batzuetan.
- b) Lehengaien prezioen bilakaera eta saltzeko azken zenbatekoetan haiek islatzeko aukera korapilatsua da, ekoizten diren autobusen gehiegizko pertsonalizazioak direla eta. Prezioen gorakada horiek sartu ezin izateak marjinak eta likidezia murriztea ekar lezake epe laburrean.
- c) Izakinen errotazioak arazo izaten jarraitzen du, 2025etik aurrera konpontzea aurreikusten dena negozio planean, baina edozein ustekabeko operatibok edo horniduren atzerapenek eragina izaten ahal dute aurreikusitako ekoizpen-erritmoan.

- 2024ko irailaren 6an, Sunsundegui jakinarazi zuen bere hartzekodunekin negoziatzen hasi zela, zorra berregituratzeko plan bat lortzeko, negozioari bideragarritasuna itzuli asmoz. Hala ere, ahalegin horiek ez ziren nahikoak izan horri buruzko akordioa lortzeko.

- 2024ko irailaren 25ean, Sunsundeguien Administrazio Kontseiluak aho batez hartu zuen hartzekodunen konkurtsoa eskatzeko erabakia.

- 2024ko urrian, Sunsundegui plantilla osatzen zuten 376 langileetatik 347 langilerentzako aldi baterako enplegu erregulazioko espedientea onetsi zen. Aldi baterako enplegu erregulazioko espediente hori 2025eko urtarrilaren 19an amaitzea aurreikusi zen.

- Konkurtsoaren borondatezko eskaera Gasteizko Merkataritza arloko 1. epaitegian aurkeztu zen 2024ko azaroaren 6an. Eskaera horretan, Sunsundegui, jarduerarekin jarraitzeko aukera bakar modura, enpresa likidatzea proposatzen zuen. Horretarako, ekoizpen-unitatea hirugarren bati eskualdatu behar zion, bere enpresa-sarea babesteko, lanpostuak mantentzeko eta abararako kaudimen ekonomiko eta gaitasun enpresarial nahikoa eman ziezaion hark. Eskabide horretan ez zen bere langileen egoera aipatzen, arestian aipatu den aldi baterako enplegu erregulazioko espedientea onetsita zegoen arren.

- 2024ko azaroaren 15ean, Sunsundegui hartzekodunen konkurtsoan deklaratu zuen ofizialki Iruñeko Merkataritza arloko 1. epaitegiak auto baten bidez.

- 2024ko azaroaren 22an, Sodenaren Administrazio Kontseiluak konkurtso-deklarazio horren berri izan zuen, eta inbertitzaile bat bilatzeko egindako gestioak zehaztu ziren.

Egun horretan bertan, eta Iruñeko Merkataritza arloko 1. epaitegian, abokatu eta ekonomialarien bulego batek konkurtso-administratzailea izateko enkargua onartu zuen.

- 2025eko urtarrilaren hondarrean, indarrean zegoen aldi baterako enplegu erregulazioko espedientea 2025eko apirilaren 30era arte luzatu zen 334 langilerentzat. Nolanahi ere, oporretako osagarriak, aparteko pagak eta enpresak laneko kontingentziak tramitatzeke konpromisoak eutsi egiten zitzaizkien.

- 2025eko martxoaren 22an, konkurtso-administrazioaren txostena eman zen eta, funtsean, hau ondorioztatu zen:

- a) Sunsundeguien ondasun eta eskubideen balorazioa 27,38 milioikoa da.

- b) Sunsundeguiaren zorra 50,21 milioira iritsi da, ondorengo xehetasunen arabera:

Zorraren sailkapena	Zenbatekoa (eurotan)
Kreditu arruntak	36.272.138
Kreditu pribilegiatuak:	13.376.987
<i>Pribilegio orokorra</i>	1.415.355
<i>Pribilegio berezia</i>	11.961.622
Mendeko kredituak	564.840
<b>Konkurtsoko-kredituak, guztira</b>	<b>50.213.965</b>

Kreditu arruntak, funtsean, hartzekodun hauei dagozkie: ehuneko 33 Sodenari, ehuneko 28 hornitzaileei, ehuneko 21 banku entitateei, eta ehuneko hamar Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioari, KOIk bermatutako finantza entitateen maileguengatik.

Kreditu pribilegiatu berezia COFIDESi dagokio.

- c) Inbertitzaileak bilatzeko 2024an egindako saiakerak aipatzen dira. Zehazki, 17rekin jarri ziren harremanetan, eta adierazten zen haietako batek bakarrik erakutsi zuela interesa. Hala ere, txosten hori idatzi zenean ez zegoen eskaintza irmorik.

- d) Aipatzen da 40 langilek borondatez utzi dutela enpresa, eta, beraz, langileak 341 direla.

Txostenak adierazten du langileekiko soldata-zorrak ordaintzea lehenetsi dela eta gaur egun ez zaiela dirurik zor.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu 2024ko apirilean eguneratutako IBRan aipatzen dela Sunsundeguiako langileek 400 euroko ordainsari lineala eta ez-finkagarria jaso zutela 2024ko martxoan (120.000 euro guztira), urte horretarako hitzartutako soldata-igoeraz gain.

- e) Txostena aurkezten denean, ez dago benetako bideragarritasun planteamendurik Sunsundeguiarentzat, ez baita eskaintzarik aurkeztu; beraz, egoera berehala aldatzen ez bada, izapideak hasi beharko dira langile guztientzako EEE azkentzaile bat egiteko. EEE horren kalte-ordain zenbatetsiak 5,27 milioikoak lirateke.

- Txosten hau idazten denean, eta Sunsundegui hartzeko eskaintzarik aurkeztu ez denez, likidazio fasera igaro da konkurtsoa. Apirilaren 30ean, konkurtso-administrazioak langile ia guztiak kolektiboki kaleratzeko eskatu zuen, eta geroratuta, eginbidean zegoen produkzioa amaitzeko beharrezkoak ziren langileak ere bai.

**1. ERANSKINA: SUNSUNDEGUIREN ADIERAZLE EKONOMIKO-FINANTZARIOEN BILAKAERA (2009-2024)**

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
(milioitan, batez besteko langile kopurua izan ezik, eta administratzaile bakarraren ordainsariak, eurotan daudenak)																
Aktibo\Pasiboa	36,84	28,04	14,10	13,63	15,44	12,14	19,23	22,73	22,97	29,32	60,79	40,49	38,07	26,18	37,59	19,63
Aktibo korrontea	30,55	22,97	9,81	9,48	11,47	7,94	14,54	17,17	16,62	19,07	48,04	27,88	26,12	14,98	27,10	12,23
Aktibo ez-korrontea	6,29	5,07	4,29	4,15	3,97	4,20	4,70	5,56	6,35	10,26	12,75	12,61	11,95	11,20	10,49	7,40
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	1,60	0,98	1,51	1,56	1,35	1,83	3,30	1,74	1,62	1,79	6,23	2,77	6,26	2,39	1,26	0,77
Ondare garbia	-9,18	-17,90	-23,45	-29,87	0,39	0,38	-0,01	0,66	1,91	2,74	3,20	4,14	-1,45	-7,32	-14,93	-32,06
Maniobra-funtisa	-13,84	-9,46	-11,11	-20,44	2,10	0,47	-1,38	-3,19	-1,88	-2,11	-5,51	0,62	-0,79	2,41	-5,04	-13,16
Pasibo korrontea	44,40	32,43	20,92	29,92	9,37	7,47	15,92	20,36	18,51	21,18	53,55	27,26	26,91	12,57	32,14	25,39
Pasibo ez-korrontea	1,63	13,51	16,63	13,58	5,68	4,29	3,37	1,72	2,55	5,41	4,03	9,08	12,61	20,93	20,38	26,30
Negozio zifra	34,14	44,55	27,38	25,12	19,32	28,98	38,07	50,39	51,67	50,14	66,10	73,17	34,17	26,60	34,46	34,27
Langile-gastuak	10,09	12,56	11,15	8,71	7,21	6,94	9,15	12,29	12,22	13,25	17,27	14,46	10,15	9,66	14,75	15,08
EBITDA	-6,65	-7,00	-4,37	-4,46	-4,26	0,55	0,08	1,27	1,47	1,27	2,11	1,64	-4,39	-4,94	-4,45	-15,22
Ekitaldiko emaitza	-7,46	-7,37	-5,59	-6,19	-3,96	11,505	-0,4	0,78	1,27	0,82	0,48	0,52	-5,54	-5,83	-7,49	-17,12
Langile kopurua batez beste	285	331	252	217	171	188	244	325	314	321	416	384	262	245	331	391
Zuzendaritzako kide kopurua	11	1	2	2	4	4	4	4	9	9	9	9	9	8	7	-
Zuzendaritzako kideen ordainsariak	0,29	-	-	-	-	-	0,35	0,39	0,71	0,77	0,77	0,70	0,54	0,53	0,65	-
Administratzaile bakarraren ordainsaria	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	154,651	150,20	151,292	-
																1


Iturria: Sunsundegiaren urteko kontuen auditoria txostenak, gehi enpresak berak emandako 2024ko behin-behineko itxiera.

## 2. ERANSKINA. SUNSUNDEGUIREN MANIOBRA-FUNTSAREN ETA KAUDIMEN- ETA DIRUZAINZTA-RATIOEN<sup>13</sup> BILAKAERA (2009-2024)

• Maniobra-fondoa (aktibo korrontea - pasibo korrontea): adierazle honek erakusten du enpresa batek epe motzean bere ondasun eta eskubideekin dituen betebeharrei aurre egiteko duen gaitasuna. Hori aztertzeko erreferentzia-balioak honako hauek dira:

Adierazlearen balioa	Balioaren esanahia
<0	Zenbat eta txikiagoa izan balioa, orduan eta maniobra-tarte gutxiago izanen du enpresak epe laburrera
>0	Zenbat eta handiagoa izan balioa, orduan eta gaitasun gehiago izanen du enpresak berehalako betebeharrei aurre egiteko

Balio horiek kontuan hartuta, aztergai den aldian adierazle horrek izan duen bilakaera erakusten du grafiko honek (milioitan):




Grafikoak erakusten du 2009az geroztik Sunsundegui ez zuela behar adinako ahalmenik bere betebeharrak berehalakoenei aurre egiteko; soilik 2013an aurkeztu zuen maniobra-funts positiboa, bere zor guztia kapitalizatu zuen Sodena kapitaletik irteteak eraginda, eta 2022an, COFIDESek 8,9 milioiko mailegua eman izanaren ondorioz.

<sup>13</sup> Adierazleei esleitzen zaizkien erreferentzia-balioak normalean finantza-analisietan onartzen diren zifrak dira, eta hain zuzen ere, konkurtso-administrazioak Sunsundegui buruz egindako txostenak erabiltzen dituenak.

• Diruzaintza-ratioa (diruzaintza / pasibo korrantea): adierazle horrek enpresaren kobrantza-eskubideak alde batera uzten ditu, epemugan haiek kobratzeko ziurtasunik ez baitago. Ratio horren erreferentzia-balioak hauek dira:

Adierazlearen balioa	Balioaren esanahia
<0,3	Baliabide gehiegi diruzaintzan
(0,1, 0,3)	Balio egokiak diruzaintzan
>0,1	Zenbat eta handiagoa izan balioa, orduan eta gaitasun gehiago izanen du enpresak berehalako betebeharrei aurre egiteko

Grafiko honetan, Sunsundeguiaren ratioak aztergai dugun aldian izan duen bilakaera ikus daiteke:



Ratio hori balio egokietan mantendu zen 2013-2015 aldian, Sodena kapitaletik atera eta zorra saneatu ondotik, eta 2019-2022 aldian, COFIDES eta KOLren funtsak jaso eta gero. Balioek nabarmen egin zuten okerrera 2023an eta 2024an.

- Kaudimen operatiboaren eta guztizko kaudimenaren ratioa:

Kaudimen operatiboaren ratioak neurtzen du enpresa batek nolako gaitasuna duen diru-kutxa operatiboan fluxu nahikoa sortzeko, epe laburreko bere ordainketa-beharrak estaltzeko, demagun, zorrak eta interesak. Hau da, enpresak bere diru-sarrera operatiboetatik abiatuta bere eragiketarako finantzatzeko duen gaitasuna neurtzen du.


Guztizko kaudimenaren ratioak edo berme-ratioak enpresak bere zorrak bermatzeko eta bere ordainketa-betebeharrak puntualki betetzeko duen gaitasuna neurtzen du.

Adierazle horien erreferentzia-balioak honako hauek dira:

Adierazlea	Adierazlearen balioa	Balioaren esanahia
Kaudimen operatiboaren ratioa (aktibo korrontea/pasibo korrontea)	<1	Kaudimengabezia operatiboa batetik urrundu ahala
	>1	Kaudimen operatibo jasoagoa, batetik urrundu ahala
Guztizko kaudimenaren edo bermearen ratioa (aktiboa guztira/pasiboa guztira – ondare garbia)	<1	Kaudimengabezia kontablea batetik urrundu ahala
	>1	Kaudimen kontable jasoagoa, batetik urrundu ahala

Balio horiek kontuan hartuta, aztergai dugun aldian ratio horiek izan duten bilakaera erakusten da ondorengo grafikoan:

### Kaudimen operatiboa eta guztizko kaudimena



Sunsundeguiak kaudimengabezia zuen 2009-2013 aldian; 2014an, guztizko kaudimenak gora egin zuen eta, 2021era arte hala eutsi zion arren, bere kaudimen operatiboak behera egin zuen berriz ere 2021era arte. 2021etik aurrera, guztizko kaudimenak behera egin zuen nabarmen, eta 2023tik aurrera, kaudimen operatiboak ere joera hori hartu zuen.


- Kaudimengabezia aurreikusteko Altman-en Z1 adierazlea. Honako formula hau aplikatuz lortzen da balio hori:

$$0,717 \times (\text{maniobra-funtsa/guztizko aktiboa}) + 0,847 \times (\text{erresebak/guztizko aktiboa}) + 3,107 \times (\text{zergen aurreko mozkina/guztizko aktiboa}) + 0,42 \times (\text{funts propioak/pasibo galdagarria}) + 0,998 \times (\text{salmentak/guztizko aktiboa})$$

Adierazle horren erreferentzia-balioak honako hauek dira:

Adierazlearen balioa	Balioaren esanahia
>2,9	Porrot egiteko aukera txikia
(1,23-2,9)	Egoera zalantzarria
<1,23	Porrot egiteko aukera handia


Balio horiek kontuan hartuta, aztergai dugun aldi adierazleak izan duen bilakaera erakusten du grafiko honek:





2009-2013 denboraldian, Sunsundegui porrot egiteko aukera handia zuen. Bere egoera zalantzakoa izatera aldatu zen 2014-2020 aldian, porrot egiteko probabilitate nabari horretara bueltatuz 2021-2024 urteetan.

Adierazgarria da aztertutako aldiko urte bakar batean ere ez zuela Sunsundegui porrot egiteko probabilitate txikia izan adierazle horren arabera.

**3. ERANSKINA. SUNSUNDEGUIKO AKZIODUNEN BILAKAERA (2009-2024)**





#### 4. ERANSKINA. KONPARAKETA PLAN ESTRATEGIKOETAN ETA BIDERAGARRITASUN-PLANETAN ETA IBRETAN AURREIKUSITAKO EKITALDIETAKO EMAITZEN SALMENTA ZIFRAREN ETA DATU ERREALEN ARTEAN (2009-2024)

Sunsundeguri buruzko bideragarritasun-planek edo plan estrategikoek, egindako “due diligence”-ak, COFIDESi finantzaketa eskatzeko landutako planak (haren eguneratzea eta berrikustea barne) eta egindako IBRek adierazle ekonomiko-finantzarioen aurreikuspenak azaltzen zituzten. Horietatik, Sunsundeguien urteko kontuen auditoretza-txostenen arabera errealitatearekin kontrasta daitezkeenak aukeratu ditugu.


Plan/txosten horietan jasotako zifrek, haiek landu zireneko datak direla eta, aukera ematen digute bi aldi desberdinetako emaitzak alderatzeko: 2009-2017 aldikoak eta 2021-2024 aldikoak.

Plan edo txosten horietan aurreikusitako salmenta zifra eta ekitaldiko emaitza datu errealekin konparatu ditugu. Hurrengo grafikoetan ageri den zutabe bakoitza data horretan plan bakoitzerako kalkulaturako zifrari dagokio, eta lerroak markatzen du Sunsundeguien errealitatea.


Premisa horiek kontuan hartuta, emaitza hau lortu da:

- Salmenta zifra: zenbateko horri dagozkion datu errealak, orokorrean, aurreikusitakoa baino nabarmen txikiagoak izan dira, hurrengo grafikoek erakusten dutenez.

#### Salmenta zifra 2009-2017




### Salmenta zifra 2021-2028




- Ekitaldiaren emaitza: horri dagozkion datu errealek erakusten dute, 2014-2016 aldian izan ezik, aurreikuspenak askoz ere baikorragoak izan zirela, batez ere 2009-2012 eta 2023-2024 aldietan.

### 2009-2017 ekitaldiaren emaitza



### 2021-2028 ekitaldiaren emaitza



**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK****“SODENAK SUNSUNDEGUI ENPRESARI EGINDAKO EKARPEN  
FINANTZARIOAK, 2009TIK 2024RAKO EKITALDIAK” IZENENKO  
FISKALIZAZIO-TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK****9. orrialdea**

Bigarren ondorioa: *“Sodenaren erabakiak hartzeko euskarri izan ziren plan estrategikoak, bideragarritasun-planak edo IBRa egin zituzten kanpo-aholkularitzek, adierazi zuten barnean hartutako zifrak eta aurreikuspenak Sunsundeguik eman zituela, eta auditatu eta kontrastatu gabeak zirela”*.

Auditoretza-lanak urtero lehen mailako firmekin egin dituen enpresa da Sunsundegui. Bideragarritasun-planak egin dituzten enpresek, kasuren batean auditoretza-enpresarekin bat datorrenak, beti izan dituzte eskueran auditoretza-txostenak; beraz, plan horietan aintzat hartutako datu historikoak auditatuta zeudela ziurtatzen ahal dugu. Jakina, aurreikuspenak aztertu egiten dira, arrazoizkotzat har daitezkeen edo ez ikusteko, baina ezin dira inoiz auditatu.

**10. orrialdea**

Azken-aurreko paragrafoa: *“... nahiz eta baden Sodenaren txosten bat ondorioztatzen duena ez zirela Estatuaren laguntzak, bien ala bien finantza-arrisku handia eta haien ezaugarriak kontuan hartuta, Europako Batzordeari jakinarazi behar zitzaioela laguntzak eman aurretik, hark azter zitzan...”*.

Europako legeriak ez du aurreikusten eragiketa finantzarioak arriskuaren arabera Europar Batzordeari jakinaraztea, baizik eta Estatuaren laguntzak diren ala ez kontuan hartuta. Aldez aurretik jakinarazi behar zirela esatea, halakoak onetsi zituen legea akastuna dela izapide hori ez egiteagatik esatea da.

**12. orrialdea**

Azken ondorioa: *“Eman nahi diren laguntzen berri Europako Batzordeari jakinaraztea, laguntza horiek estatu-laguntzat jotzeari buruz arrazoizko zalantzak daudenean”*.

Gaur egun Estatuaren laguntza argien inguruko txostenak Sodenako langileek egiten dituzte, eta zalantzak daudenean edo gaia konplexuegia denean, gaian aditua den profesional bat kontratatzen dugu, txostena egin dezan. Ez zaigu oso eraginkorra iruditzen, ez denborari ez diruari dagokionez, Espainiako Estatu (Europako Batzordeari kontsultak edota eskaerak egiteko eskumena duen administrazio bakarra) eta Europako Batzordea inplikatzeko zuzenean konpontzen ahal dugun gai bat argitzeko.

\*\*\*\*\*

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMATEN DIEN ERANTZUNA**

Eskertzen ditugu Sodenaren zuzendari kudeatzaileak 2025eko ekainaren 3an aurkeztutako alegazioak. Alegazio horiek aztertu dira eta, haien inguruan, honako hau jakinarazten dugu:

- Gure txosteneko 9. orrialdeari buruzko alegazioari dagokionez, Kontuen Ganbera honek ondorioaren idazketari eutsi egiten dio; izan ere, bertan aipatzen zen kanpoko enpresek egindako bideragarritasun-txosten eta IBR guztietan esaten zela bertan aintzat hartutako zifrak eta aurreikuspenak Sunsundegui emandako datuak zirela, auditatu eta kontrastatu gabeak. Kontuen Ganbera honek ez daki enpresa horiek aztertu eta arrazoizkotzat jo ote dituzten txostenetan jasotako aurreikuspenak.

- Gure txosteneko 10. eta 12. orrialdeei dagozkien alegazioei buruz, honako hau adierazten dugu:

Gure txostenean ondorioztatzen denez, Kontuen Ganbera honek uste du, Kontu-hartzailtzako zuzendari nagusiaren eragozpen-txosten ez-etengarrrian adierazten zen bezala, arrazoizko zalantzak bazeudela jarduketa horiek Estatuaren laguntzat hartzeko aukerari zegokionez. Horregatik, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 108. artikulua aplikatzeko arau zehatzak ezartzen dituen 2015/1589 Erregelamenduan, 2015eko uztailaren 13koan, Europar Batasuneko Kontseiluak emandakoan, aurreikusten den bezala, gure gomendioa da alde zuzeneko jardueren berri eman behar zitzaiola Batzordeari.

Erregelamendu horren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Batzordeak gehienez ere bi hilabeteko epean eginen du jakinarazpenaren aurretiazko azterketa; epe hori behar bezain laburra dela uste du Kontuen Ganbera honek, jarduketaren legezatasuna ziurtatu ahal dadin; izan ere, jarduketa horien diru-zenbatekoa dela eta halakoak Estatuaren laguntzat hartzeko arriskua handia da.

Horregatik guztiagatik, alegazio horiek ez dute gure behin-behineko txostenaren edukia aldarazten, eta behin betikoa bihurtzen da berau.

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador